

2019/10/22an EGINDAKO OHIKOA  
UDALBATZA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE  
LA CORPORACIÓN. Día 22/10/2019 .

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

#### Zinegotziak

Maite Uribe Beristain  
Antonio Regaño Sájeras  
María Purificaicón Regidor Varela  
Josu Ezkurdia Santamaría  
Ana Belén de Castro Ramos  
Eluska Irazu Henández  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Dorleta Sologaitoa Aguiriano  
Ander Errarte del Pozo  
Iñaki Kerejeta Gorostiza

#### Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2019ko urriaren 20an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ohiko Udalbatzarra, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gai ei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 22 de octubre de 2019, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de las personas que arriba se expresan para tratar los asuntos reseñados dentro del orden del día..

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2019ko irailaren 24an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

### **2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.**

2019ko urriaren 16ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berriaz eman da 23. kreditu aldaketa espedientea onartzeko erabakiaren berri.

### **3.- GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIKO LANKIDETZA PROGRAMAREN BARRUAN DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK DIRELA-ETA ESTATUKO ABOKATUTZAK JARRITAKO KASAZIO-ERREKURTSOAN AGERTZEKO EPAKETA.**

2019ko ekainaren 10ean EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko auzien salak emandako epaiaren aurka Estatutako Abokatutzak jarritako kasazio-errekurtsoa dela-eta jasotako epaketaren aurrean, bertaratutako udalbatzarkideek, aho batez, honako hau ERABAKI DUTE:

884/2018 apelazio-errekurtsuari buruz 2019ko ekainaren 10ean EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko auzien salak emandako epaiaren aurka Estatuko Abokatutzak jarritako kasazio-errekurtsoan agertzea auzitegi gorenaren hirugarren salaren aurrean Madrileko Antonio Sanchez Jauregui Alcaide prokuradorearen bidez eta JUAN RAMON UGALDE EGAÑA letraduaren zuzendaritzapean.

### **4.- TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOEN PROPOSAMENA 2020. URTERAKO.**

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Taxi zerbitzurako ondorengo tarifak baimentzea 2020rako:

1. TARIFA*			2. TARIFA **		
Abisaria	Egindako kilometroa	Itxaronaldia, orduko	Abisaria	Egindako kilometroa	Itxaronaldia, orduko
3,6806	1,1530	22,0197	3,6806	1,8390	34,6147

Ohikoa Udalbatza  
PlenoPleno Ohikoa

(\*) Tarifa hau lanegunetan ezarriko da 07:00etatik 22:00etara.

(\*\*) Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 07:00etara. Era berean, II. tarifa aplikatuko da igandeetan eta erkidegoko eta herriko araudietan ezarritako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara, eta baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

**Bigarrena.-** Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari ematea indarrean dauden tarifak erabaki honen arabera aldatzeko.

## **5.- 21. KREDITU ALDAKETA: KREDITU TRANSFERENTZIA.**

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 21. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespenez proposamena irakurri dira.

Aztertu eta bozkatu ostean, bertaratutako EH BILDUKo 4 zinegotzi abstenituta, eta bertaratutako gainerako udal batzarkideek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DA:

**Lehenengoa.-** Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 21. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapituluko laburpenaren arabera.

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

<b>Partida</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Murrizketa</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
1 0500.227.336.00.29 2019	ATXORROTX GAZTELUA:INDUSKETA LANAK	15.000,00	15.000,00	0,00
1 0200.160.153.40.01 2019	GIZARTE- ASEGURANTZA:ZERBITZUAK MANTUA	74.059,51	15.000,00	59.059,51
1 0200.160.342.20.01 2019	GIZARTE- ASEGURANTZA:KIROLDEGIA	20.472,34	15.000,00	5.472,34
1 0400.227.323.20.17 2019	KONTRATUA:HAURTZAINDEGI ZERBITZUA	132.061,70	5.000,00	127.061,70
1 0200.330.011.00.01 2019	MAILEGUEN INTERESAK	1.948,68	1.948,48	0,20
<b>GUZTIRA</b>		<b>243.542,23</b>	<b>51.948,48</b>	<b>191.593,75</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

<b>Partida (*)</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gehikuntza</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
1 0400.481.341.00.01 2019	DIRU LAGUNTZA:KIROLA	3.100,00	1.500,00	4.600,00
1 0400.226.335.00.08 2019	EKINTZAK:EUSKERA	30.000,00	6.000,00	36.000,00
1 0400.481.323.40.01 2019	DIRU LAGUNTZA: L.EZEIZA .URTEKO EKINTZAK	3.000,00	2.026,00	5.026,00
1 0400.227.342.20.16 2019	KIROLDEGIKO EKINTZEN KUDAKETA	257.921,78	22.000,00	279.921,78
1 0100.212.161.00.01 2019	MANTENIMENDUA:URA	8.000,00	20.422,48	28.422,48
<b>GUZTIRA</b>		<b>302.021,78</b>	<b>51.948,48</b>	<b>353.970,26</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

**Ohikoa Udalbatza**  
PlenoPleno Ohikoa

**Bigarrena.-** Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

#### **ZINEGOTZIEK ESANDAKOAK:**

- Eluska Irazuk adierazi du bere taldea abstenitu egingo dela, Atxorrotzeko indusketa lanei buruzko informazio gehiago behar dutelako. Esan du zerbitzu teknikoaren txostenaren aurrean hainbat kontu jakin nahi dituztela, esaterako, ea Aldundiko teknikariek egon diren zer jarraibide markatzen duten ezagutzeko eta gai horri buruz jarduera plan zehatzik dagoen.
- Josu Ezkurdiak erantzun dio partida hori kentzeko arrazoi nagusia izan dela udal teknikariak zein Foru Aldundikoak uste zutela nahiko indusketa lan egin direla, eta une honetan egin beharrekoa orain arte egindako guztiaren balioa agerian jartzea dela. Esan du gaia batzordean aztertu zela, eta agintaldiaren hasieran jakinarazi zen bezala, gai guztiak batzordeetan jorratzen direla, eta batzorde horretan ez baziren egon ere, informazio guztia aktetan dagoela. Azkenik, jakinarazi du Ekonomia Garapen Jasangarrirako hurrengo batzordean gai horri buruz eman beharreko hurrengo urratsak aztertzeke asmoa dagoela.

### **6.- 22. KREDITU ALDAKETA: KREDITU GEHIGARRIAK**

Kredituak aldatzeko 22. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzailerak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharrezko eta tramiteei.

Idazkaritza-kontuhartzailerak egindako txostena ikusita, proposamena bototara jarri da, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 22. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

Gastuen	Azalpena	Kredituak
---------	----------	-----------

partida		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0200.933.011.00.01 2019	MAILEGUEN AMORTIZAZIOA	205.978,51	178.000,00	383.978,51
1 0100.227.161.00.35 2019	AZTERKETA,LAN TEKNIKOAK URA	2.320,00	27.500,00	29.820,00
1 0100.221.161.00.02 2019	UR PATZUERGOA	279.946,95	30.000,00	309.946,95
<b>GUZTIRA</b>		488.245,46	235.500,00	723.745,46

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2019	DIRUZAINZAKO GERAKINA.GASTU OROKORRETAR	235.500,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>235.500,00</b>

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

## **7.- DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEA.**

Udalbatzarrak, 2018ko abenduaren 18an egindako bilkuran, 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa eguneratzeko erabakia hartu zuen plan hori 2019ko ekitaldiko aurrekontuari egokitzeko.

Eguneraketa onartuta, komenigarria ikusi da planaren eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea lerro estrategikoetako diru laguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko. Aldaketa horiek honako hauek dira:

**Ohikoa Udalbatza**  
PlenoPleno Ohikoa

A- ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTUA HANDITZEA: PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Programatutako kirol jarduerentzat eta irabazi asmorik gabeko Eskoriatzako kirol talde eta elkarteentzako diru laguntzak. Eskaera guztiei erantzun ahal izateko, 1.500 eurotan handitzea.

B- ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTUA HANDITZEA: PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Luis Ezeiza Herri Eskolak antolatutako jarduerak. 2.025 eurotan handitzea ikastetxeak Baketi fundazioari eskatutako zerbitzuak finantzatzen lagundu ahal izateko.

Aurrez esandako guztia kontuan izanik, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.**- ONDORENGO PROGRAMETAN AURREIKUSITAKO KOSTUA HANDITZEA:

C) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Programatutako kirol jarduerentzat eta irabazi asmorik gabeko Eskoriatzako kirol talde eta elkarteentzako diru laguntzak.

HARTZAILEA: Egoitza edota jarduera eremua Eskoriatzan duten herritar taldeak eta kirol elkarteak.

HELBURUA: Herriko irabazi asmorik gabeko kirol elkarteek eta taldeek urtean zehar egingo dituzten jarduerak diruz laguntzea. Azken helburua da kalitatezko kirol jarduerak eskaintzea herrian, eta herritarren parte hartzea sustatzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Deialdi publikoa. Lehiaketa.

2019ko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 4.600 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.341.00.01 partida

B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: Luis Ezeiza Herri Eskolak antolatutako jarduerak.

HARTZAILEA: Luis Ezeiza Herri Eskola

HELBURUA: Ikastetxeak 2019an programaren jarduera lerro estrategikoaren helburu estrategikoekin bat etorrira egingo dituen jarduerak eta ez ohiko proiektuak finantzatzeko puntualki laguntzea.

LORTU GURA DENA: Ikastetxeak proposatutako jarduerak egingo direla bermatzea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: izenduna.

2019ko KOSTUEN AURREIKUSPENA: 5.025 euro.

FINANTZIAZIOA: 0400.481.323.40.01 partida

## **8.- DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEKO BATZORDE INFORMATIBOETARAKO UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA**

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, EH BILDuko 4 zinegotziek aurka bozkatuta (bere botoa justifikatzeko beste erakunde batzuetarako ordezkariak izendatzeko aurreko bilkuretan erabilitako arrazoiak aipatu dituzte) eta bertaratutako beste 7 zinegotziek alde bozkatuta, erabaki da Debagoiena Mankomunitateko batzorde informatzaileetako kide izateko ondorengo zinegotziak izendatzea:

- Ingurumen batzordea: Titularra: Josu Ezkurdia Santamaría, Ordezkoa: Ana Belén de Castro Ramos
- Garapen ekonomiko et turismo batzordea: Titularra: José Ramón Zubizarreta Alegría, Ordezkoa: Antonio Regaño Sájeras
- Pertsonal batzordea: Titularra: José Ramón Zubizarreta Alegría, Ordezkoa: Maite Uribe Beristán
- Kontu eta ogasun batzordea: Titularra: José Ramón Zubizarreta Alegría, Ordezkoa: Josu Ezkurdia Santamaría
- Kirol batzordea: Titularra: Maite Uribe Beristán, Ordezkoa: José Ramón Zubizarreta Alegría.

### **ZINEGOTZIEK ESANDAKOAK**

- Dorleta Sologaitoa: aurka bozkatzearen arrazoia beste batzuetan esandakoa da. Uste dugu emakumeen presentzia boterean minimoa dela Udal honetan.
- Josu Ezkurdia: egia da, ondo esan duzun bezala, udalbatzar guztietan ateratzen duzuen gaia da, eta beharbada, gai zerrendan ere sartu beharko genuke; baina, nahi duguna, eta ez dakit salatzea horretarako hitz egokia den, zuen jarrera azpimarratzea da, beti kritikatzan ari baitzarete. Guk hartutako erabaki bat da, bere garaian azaldu genuen zergatik uste genuen kargu jakin batzuetarako egokiagozat jotzen genuen gizonetzkoak izendatzea, eta ez emakumezkoak; zuek aurka bozkatu zenuten eta guk ulertu genuen zuen planteamendua. Hala ere, gure planteamendua ez onartzeaz gain, ulertu ere ez duzue egiten. Eta harrigarria da aurreko bilkuran, egin genuen izendapen aldaketarekin, bi emakume izendatu zirela bi kargurako, eta gure harridurarako, hor ere

**Ohikoa Udalbatza**  
PlenoPleno Ohikoa



aurka bozkatu zenuten. Ez genuen ulertu zuek kontra bozkatu izana, eta ez diogu zentzu handirik ikusten ere. Hori, alde batetik, eta bestetik, etengabe esaten duzue emakumeak egon behar direla... baina, Udal honetan, emakumearekin, berdintasunarekin, zerikusirik duten gaiak jorratzen diren batzordean gizona bat izendatuta duzue. Gauza bat esaten duzue eta gero beste bat egin; gu, berriz, saiatzen gara esaten duguna egiten. Ez dakit merezi duen gai honi hainbeste buelta ematea udalbatzarraren bilkura guztietan; zorionez, aldaketaren bat egiteko beharra ikusten ez badugu behintzat, izendatuta daude ordezkari guztiak eta ez dut uste gaia berriz aztertuko denik.

- Dorleta Sologaitoa: gure aldetik, emakumeek parte hartze portzentaje bera izaten jarraitzen badute, salatzen jarraituko dugu.

## **9.- GIPUZKOAKO LURRALDE GARRAIO AGINTARITZA KONTSORTZIOAREN ETA ESKORIATZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA UDAL ERROLDAKO DATUAK LAGATZEKO MUGI TXARTELAK EGITEKO.**

GIPUZKOAKO LURRALDE GARRAIO AGINTARITZA KONTSORTZIOAREN (aurrerantzean ATTG-GGLA) eta Udal honen artean sinatzeko proposatutako lankidetzaren hitzarmena ikusi da. Hitzarmenaren helburu nagusia MUGI garraio txartela lortu nahi dutenek Gipuzkoako udalen batean erroldatuta daudela egiaztatzeke ATTG-GGLAK datu pertsonalak tratatzeko baldintzak ezartzea da.

Hori horrela, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Proposatutako hitzarmena sinatzea. Hitzarmena akta honekin batera doa, 1 eranskin gisa.

**BIGARRENA.-** Jose Ramon Zubizarreta Alegria Alkate jaunari eskumena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko Udalaren izenean eta ordezkartzan.

## **10.- 2020. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEKO HASIERAKO ONARPENA.**

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak, 2019ko urriaren 14an egindako bileran, 2020rako ordenantza fiskalei buruzko diktamena eman zuen.

Guztiok ezagaturik diktamenaren eduki osoa, hitz egiteko txandari ireki du Alkateak.

Josu Ezkurdiak orokorrean azaldu du onartu dadin batzorde informatzaileak egindako proposamena burutzeko jarraitu den prozesua eta baita proposamenaren lerro nagusiak ere; laburbilduz, honako igoera esanguratsuenak jasotzen dituen zerbitzuaren benetako kostua estaltzen joateko, eta zergadunarentzat ez dena izango hilean euro 1 baino handiago igoera.

- Kiroldegiko tasak: KPIa (% 5)
- Etxeko hondakinen bilketa, % 5,13; eta zerbitzuena eta industriena, % 0,5

Berriaz adierazi ditu ere 3 aldaketa EH BILDUren 6 proposamenetatik, onartzea proposatzen direnak positibotzat jotzen direlako.

Azalpena amaituta, ondorengoek hitz egin dute:

- Ander Errarte: eskertzen dugu gure proposamenetako batzuk kontuan hartu izana, baina, gu abstenitu egingo gara OHZren errekaruarengatik. Uste dugu emantzipatzeko zailtasun handiak dituztela gazteek Eskoriatzan eta hori konpontzen laguntzeko politikak bultzatu behar direla. Alokairuaren batez besteko prezioa Eskoriatzan 600-800 euro ingurukoa da. Merkatura etxebizitza gehiago atera ahal izateko etxebizitza hutsei OHZn errekarua ezartzea proposatzen dugu. Esan zenuten aurreko agintaldi batean aplikatu zela eta ez zuela eraginik izan. Uste dugu etxebizitza batzuk merkatura ateratzea lortzen den unetik, nahiz eta gutxi izan, neurria eraginkorra izango dela. Egoera prekarioan bizitzeagatik zerga ordaintzeko zailtasunak dituzten pertsona eta familientzat laguntzak izatea ere eskatzen dugu. Horregatik, proposatzen dugu OHZn % 50eko errekarua jartzea etxebizitza hutsei, etxebizitza hutsatzat joz 3/2015 Legean definitutakoak. Hortik abiatu beharra dugu etxebizitza hutsak merkatura irten daitezela lortzeko. Honakoak ere proposatzen ditugu: Eskoriatzako etxebizitza hutsen errolda egitea Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Etxebizitza Hutsen Erregistroa osatzeko eta udal ordenantza bat egitea prekarioan bizi diren Eskoriatzako familiei OHZ ordaintzen laguntzeko.
- Josu Ezkurdia: gu izan ginen etxebizitza hutsentzako OHZko errekarua kendu genuenak bi arazoengatik nagusiki. Bata, ikusi genuelako errekaruarekin ez zela lortzen lortu nahi zen helburua; izan ere, indarrean egon zen denboran, hutsik zeuden 200 etxebizitzetatik, bakarrik 18 atera ziren merkatura. Uste dugu datu horiekin egiaztatuta gelditzen dela ez zela lortu nahi zen helburua. Eta, beste arazoa izan zen zailtasun teknikoak honakoak definitzeko: ze etxebizitza ulertzen zen hutsik zeudela eta zeintzuri ezarri behar zitzairen errekarua (baserri baten titularra izan eta herrigunean bizi direnen kasua aipatu du). Errekargua aplikatzeko zeuden zailtasunak eta neurri horrek izandako eragin txikia ikusirik, errekarua kentzea erabaki genuen, eta horregatik ez gaude berriz aplikatzearen alde. Beharrak dituztenei laguntzeari dagokionez, uste dugu helburu oso laudagarria dela, eta zentzu horretan ulertzen dugu eskaria, bainak arazoa handia izan daiteke, etorkizunean gastu finkoa handitzea ekar dezakeelako eta ezin dugulako horrelako konpromisorik hartu zenbat diruz ari garen jakin gabe. Urte batean laguntzen baduzu hurrengoetan ere jarraitu beharko da, eta

ezin dugu konpromisorik hartu geroko gastuei buruzko partida hori 10.000 eurokoa edo 200.000 eurokoa izango den jakin gabe. Horregatik, ez dugu zentzuzkorik ikusten neurri hori onartzea azterketa sakonago bat egin gabe. Eta, azkenik, esan behar da zergak oso sozialak, aurrerakoiak eta progresiboak direla Eskoriatzan, eta datu bat besterik ez dut emango: Gipuzkoako Ogasunak iaz bildutakotik % 75a herritarren % 15ak jarri zuen, hau da, Aldundiak bildutako 10 euro bakoitzetik 7 euro 10 herritarretik 1ek jarri zuen, eta beste 3 euroak beste 9 herritarrek jarri zituzten. Uste dugu gure zergak progresiboak direla eta hori da guk defendatzen duguna, eta horregatik, ez dugu zuen eskaera ulertzen.

- Ander Errarte: esan duzu azterketa sakonago bat egin behar dela partida finko bat jarri aurretik, ba, egin dezagun. Eta gazteek emantzipatzeko duten zailtasunari buruz, esan diezazuket, gaztea izanik, eta nire gurasoekin bizi, ezin naizela emantzipatu; eta ni bezala, Eskoriatzako beste gazte pila bat. Emantzipatzeko batez besteko adina Euskadin 29 urte eta 8 hilabetekoa da. Batez besteko adin hori jaisteko politikak jar daitezke martxan. Esan duzu OHZ errekarua ezarrita bakarrik 18 etxebizitza atera zirela merkatura Eskoriatzan, ba, 18 etxebizitza gehiago dira Eskoriatzako gazteentzat. Errekargua berriz jartzen badugu, ba, beharbada, beste 18 izango ditugu. Eskoriatzako gazteok emantzipatu nahi baldin badugu prest egon behar gara hilean 800 euro ordaintzera, eta unibertsitateko ikasleekin lehian ari gara; eta pertsona batek edo bikote batek zail du 3-4 ikasleko talde batekin lehiatzea. Hemendik bi urtera unibertsitatea handitu egingo da, eskaera igo egingo da, eta Eskoriatzako gazteek arazo bera izango dugu, baina, handiagoa. Uste dut hobe dela lanean orain hastea partxe bat jartzeko.

Anderrek jarraitu du gazteek beraien gurasoen etxetik atera eta beraien bizi proiektua egiteko dituzten zailtasunak adierazten, eta baita Udalak arazoa moteltzeko neurri politikoak martxan jartzen joan zitekeela ere, eta, ahal duen neurrian ahal duena eginda, jarraitu beharreko eredia izan beharko litzatekeela. Amaitzeko, esan du arazo hain larri baten aurrean bere taldea prest dagoela lankidetzan aritzeko, ekarpenak egiteko, uste baitute horretarako politikak martxan jar daitezkeela.

Josu Ezkurdiak erantzun dio entzuteko eta proposamenak martxan jartzeko prest daudela, baina, proposamen egingarriak izan behar direla.

Ander Errartek dio bere burua jarri duela adibidetzat beste batzuen ez jartzearren, baina bera bezala, arazo hori duten gazte asko daudela, eta horregatik, botereguneetatik lanean hasi behar dela eta neurriak bultzatu eta martxan jarri; eta berea proposamen bat izan dela, baina, gobernu taldeak, ez orain bakarrik, ezta orain dela lau urte ere ez duela inolako proposamenik egin gai horri buruz.

Alkateak erantzun dio proposamenak batzordera eraman eta bertan landu behar direla, eta gai horri buruz ere horrela egitera gonbidatu du.

Eztabaida amaitu ondoren bozketa egin da.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, EH BILDUKo lau zinegotziak abstenituta eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DA:

**Lehenengoa.-** Hasiara batean onartzea 2020rako ordenantza fiskalen aldaketa I eranskinean aurreikusitako moduan.

**Bigarrena.-** Hartutako erabakiak jendurrean jartzea 30 egun baliodunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Hartutako erabakiak, Ordenantzen aldaketak eta horien eranskinak behin betikoak izango dira, berriro erabakirik hartu gabe, jendurrean jarritako epean inolako erreklamaziorik egiten ez bada.

## **11.- MARINEN OBRAK EGITEKO LURREN LAGAPENA ONARTZEA.**

Autobusek Marinen buelta har dezaten buelta lekua hobetzeko obrak egiteko beharrezkoa da Maria Ascension Arrese Letonaren jabetzako Landa katastroko 02. poligonoko 325. lurzatiko 66,44 m<sup>2</sup> okupatzea.

Okupazio horrekin finkari eusteko harri-lubeta bat eta hormigoizko akabera izango duen lautada bat egitea nahi da autobusek edo ibilgailu astunek buelta emateko lekua izan dezaten.

Lurraren jabeak, Maria Ascension Arrese Letonak, baimena eman dio Eskoriatzako Udalari lurra okupatzeko, eta okupatutako lur horien titularitatea doan laga dio Udalari.

Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Maria Ascension Arrese Letona andrearen jabetzako Landa katastroko 02. poligonoko 325. lurzatiko 66,44 m<sup>2</sup>-ren titularitatearen lagapena onartzea.

## **12.- HAUTESKUNDE MAHAJETAKO KIDEAK HAUTATZEKO ZOZKETA.**

Hauteskunde Erroldako Bulegoak utzitako CONOCE aplikazioa erabiliz, GORTE NAGUSIETARAKO azaroaren 10eko hauteskunde egunerako hauteskunde mahaiak zozketatu dira, indarrean dagoen Hauteskunde-araubide Orokorren Lege Organikoaren 26. artikulua agindutakoa betez.

Ondoren, aho batez, Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

**Lehenengoa.-** Alkatearen esku uztea, Eskoriatzako Udaleko bozeramaileen batzordeak lagunduta, eskualdeko hauteskunde-batzordeak interesdunei alegazioak eta aitzakiak onartzeagatik hutsik gelditu daitezkeen karguak betetzeko pertsonak zozketaz aukeratzeko ahalmena.

### **13.- KATALUNIako PROCES-AREN AURKAKO EPAIARI BURUZKO ERAKUNDE ADIERAZPENA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako erakunde adierazpen hau ONARTU DU:

1. Eskoriatzako Udalak ziurtatzen du demokraziaren adierazpen baketsua, indibiduala zein kolektiboa, gauzatzea eta herriari hitza ematea ez dela delitua. Hori horrela, urriak 1eko erreferenduma tresna demokratiko eta zilegia izan zela, eta Kataluniak bezala Euskal Herriak ere, berezkoa dutela etorkizuna erabakitze eskubidea.
2. Eskoriatzako Udalak argi eta garbi adierazten du ezin direla justifikatu Auzitegi Gorenak eta Estatu botereek Kataluniako agintari eta gizarte eragileei bizkarreratutako auzia eta ezarritako zigorrak.
3. Eskoriatzako Udalak nabarmentzen du Kataluniako *Proces*-aren aurkako auziak eta epaiak Zuzenbide Estatuaren itxuragabetzea dakartela eta ezbaian jartzen dutela espainiar demokraziaren homologazioa nazioartean.
4. Eskoriatzako Udalak azpimarratzen du euskal herritarrei zuzenean eragiten digula Estatu espainiarraren erantzun bortitzak, izan ere herrien borondatea era demokratiko eta baketsuz erabakitzea mozten baitu eta arazo politikoari tribunalen indarrez, 155. Artikuluaren ezarpenez edo erabakitze eskubidearen alde egiten dutenei edonolako

neurri bidegabeak ezarriz irtenbide elkarrizketatu eta negoziatua bilatu ordeztu eta herriari galdetu beharrean.

5. Eskoriatzako Udalak Estatuko botereei eskatzen die, espetxean dauden preso politikoak berehala aske utzi ditzatela eta era berean, erbesteratu politikoen aurkako auzibideak bertan behera utzi ditzatela.
6. Eskoriatzako Udalak elkartasuna adierazten die Kataluniako preso eta erbesteratu politikoei nahiz haien etxekoei hala nola Kataluniako herriari eta erakundeei, eta eskoriatzarrei dei egiten diete bat egin dezaten herriari hitza ematearen aldeko ekimen baketsuekin, demokraziaren eta askatasunaren alde.

#### **14.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:45ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## ERANSKINA-HITZARMENA

### **ERANSKINA.- UDALERRI ERROLDATURIK BETEKIZUNAREN EGIAZTAPENA**

### **GIPUZKOAKO BATEAN EGOTEKO**

### **ANEXO.- COMPROBACIÓN DEL REQUISITO DEL CUMPLIMIENTO DE EMPADRONAMIENTO EN UN MUNICIPIO GUIPUZCOANO**

**Deskribapena:** MUGI talde berezien txartelen eskatzaile eta onuradunak Gipuzkoako Udalerriren batean erroldaturik egotearen betekizunaren egiaztapena.

**Descripción:** Comprobación del cumplimiento del requisito de estar empadronado en un municipio Guipuzcoano por parte de los solicitantes y beneficiarios de las tarjetas de colectivos MUGI.

1.-Helburua: MUGI talde berezien garraio publikoko txartela eskuratu nahi duten erabiltzaileak Gipuzkoako Udalerriren batean erroldaturik daudela egiaztatzea. Aitatu baldintza ezinbestekoa da talde berezien txartelaren titularra izan eta zenbait hobari eskuratzeko eskubidea izateko.

MUGI sistema 2014ko martxoaren 4an indarrean sartu zen tarifa bateratuko sistema da, Gipuzkoako garraibide guztietan aplikatzen dena.

Sistemaren euskarria MUGI txartela da, pertsonala eta besterenezina dena.

Tarifa hobaridunetarako eskubidea dute taldeak hauek dira:

Gazteak, Adinekoak, Ezinduak, Soziala eta Familia Ugariak.

**1.- Finalidad:** comprobar que las personas usuarias que quieran obtener una tarjeta de transporte público de colectivo MUGI se encuentran efectivamente empadronadas en un municipio Guipuzcoano. Esta circunstancia es requisito para poder ser titular de las referidas tarjetas de colectivo y obtener el derecho a determinadas bonificaciones.

El sistema MUGI es un sistema de tarificación integrada implantado con fecha 4 de marzo de 2014 en todos los modos de transporte público colectivo de viajeros de Gipuzkoa.

La tarjeta que soporta el sistema es la tarjeta MUGI, tarjeta personal e intransferible.

Los colectivos con derecho a tarifas bonificadas son los siguientes:

Jóvenes, Mayores, Con Discapacidad, Social y Familia Numerosa.

Taldeentzako MUGI txartelak bere titularra Gipuzkoan erroldatuta egotea eskatzen du.

La tarjeta MUGI de colectivos exige el empadronamiento en Gipuzkoa por parte de sus titulares.

## ARAU OINARRIA

Aipatu alorrean GIPUZKOAKO GARRARIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOAK dauzkan eskumenak arau hauek egotzen dizkiote:

- 6/2007 FORU ARAUA, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituena.
- ATTG-GGLA erakudearen eraketa akordioa.
- ATTG-GGLA erakundearen Estatutuak.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan Tarifa Sistema Integratua ezartzeko lankidetzarako protokolo orokorra.
- Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos, S.A., Renfe, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia/San Sebastián, Zarautz, Irun, Arrasate, Hernani, Errenteria, Eibar, Lasarte-Oria eta Oiartzungo Udalekin egindako hitzarmenak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa sistema integratua ezarri ahal izateko.
- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzarraren erabakiak(2012ko azaroaren 5 eta 15ekoak, 2013ko otsailaren 6 eta

## JUSTIFICACIÓN NORMATIVA

Las competencias del CONSORCIO AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA en esta materia vienen establecidas por la siguiente normativa:

- Norma Foral 6/2007 de 10 de abril, reguladora de las Entidades de Ámbito Supramunicipal del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- Convenio de constitución de la ATTG-GGLA.
- Estatutos de la ATTG-GGLA
- Protocolo general de colaboración para la implantación del sistema de Integración Tarifaria en el transporte público colectivo del Territorio Histórico de Gipuzkoa
- Convenios de colaboración con Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos, S.A, Renfe, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia/San Sebastián, Zarautz, Irun, Arrasate, Hernani, Errenteria, Eibar, Lasarte-Oria y Oiartzun para la implantación del sistema de integración tarifaria en el transporte público colectivo del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- Acuerdos de la Asamblea de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. (de 5 y 15 de noviembre 2012; de 6 y 14 de



14koak; 2013ko abenduaren 9koa eta 2019ko otsailaren 14koa).

febrero de 2013; 9 de diciembre de 2013 y 14 de febrero de 2019).

**1.- Interesdunaren baimenik eskatzen al da?**

Bai. **Berariazko** baimena eskatzen da txartel berriak eta txartela berritzeko eskaera inprimakian. Inprimaki horretan, baimenari buruzko klausula agertzen da.

**1.-¿Se solicita el consentimiento de la persona afectada?**

Sí. Al realizar las nuevas solicitudes o renovaciones de tarjeta se solicita el consentimiento **expreso** de cada uno de los solicitantes que incorpora la correspondiente clausula de autorización.

**2.- Informazioaren edukia:** Gipuzkoako Udalerriren batean erroldatuta egotearen betekizuna betetzen duela **soilik** jakitea.

Zentzu honetan, erabiltzailearen aurretiko baimenarekin eta GGLaren aldetik MUGI talde berezien eskatzailearen datuak identifikatzeko beharrezkoak diren datu minimoak (NAN eta izen-abizenak) bidalita, eskatuko den datu bakarra, Gipuzkoako udalerriren batean erroldatuta egotearen betebeharra betetzen den edo ez jakitea izango da.

**2.- Contenido de la información:** conocer **exclusivamente** el cumplimiento de la obligación de estar empadronado en un municipio Guipuzcoano.

A este respecto, previa autorización de la persona usuaria y remisión por parte de la ATTG de los datos mínimos necesarios para la identificación de la usuaria solicitante de la tarjeta de colectivo MUGI (DNI, y Nombre y Apellidos), únicamente se solicitará conocer el cumplimiento o no del requisito de estar empadronado en un municipio Guipuzcoano.

**3.- Egiaztapena burutzeko prozedura:**

Baliabide telematikoen bitartez burutuko da, hauek bere aldetik, komunikazio seguruak bermatuko dituztelarik, bai eta datuen osotasuna eta konfidentziasuna ere.

**3.- Procedimiento para realizar la comprobación:**

A través del intercambio de medios telemáticos seguros que garantizará tanto la integridad como la confidencialidad de los datos intercambiados.

**4.- Aldizkotasuna:** Kontsultak egunero burutuko dira.

**4.- Periodicidad:** Se realizará una consulta con periodicidad diaria.

**5.- GGLAn baimendutako pertsonak:**

**5.- Personas autorizadas en la ATTG:**

[Redacted] Gestio orokorreko NAN teknikaria

[Redacted] Técnica de Gestión General. DNI

[Redacted] Gestio orokorreko DNI teknikaria.

[Redacted] Técnico de Gestión General. DNI

6.- Solaskideak:

**6.- Interlocutores:**

- *Gai juridikoetarako:* GGLako Zerbitzu Juridikoa

- *Para cuestiones jurídicas:* Servicio jurídico de la ATTG

[Redacted]

- *Gai teknikoetarako:* GGLako Planifikazio teknikaria

- *Para cuestiones técnicas y generales.*

[Redacted]

Alde biek eranskin honetan jasotako datuak eguneratzeko konpromisoa hartzen dute.

Ambas partes se comprometen a mantener actualizados los datos contenidos en el presente anexo

## ANEXO-PROPUESTA ORDENANZAS

### **ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA**

**2019an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU.**

### **JARDUERA EKONOMIKOAREN GAINEKO ZERGA**

**2019an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU.**

### **TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA**

**2019an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU.**

### **HIRI-LURREN BALIO IGOERAREN GAINEKO ZERGA.**

**2019an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU, tarifa izan ezik, aldi guztietarako batzen dena.**

## **II. PORTZENTAJE TAULA**

### **EPEA      URTEKO PORTZENTAJEA**

- a) 1etik 5 urtera ..... 3,6
- b) 10 urtera arte ..... 3,4
- c) 15 urtera arte ..... 3,1
- d) 20 urtera arte ..... 2,9

## **III. TARIFA: 6,20**

### **ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA**

2019an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU, eta hobari berria sartzea eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko obrentzat.

**ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK  
ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.**

2019an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU, HONAKO TASAK EZIK:

- ADMINISTRAZIOAK EMANDAKO DOKUMENTUAK.
- HONDAKIN BILKETA.
- UR HORNIDURA.
- KIROLDEGIA.
- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA.

**1 ERANSKINA**

**HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEAGATIKO TASAK**

**2 ERANSKINA**

**JARDUERA ZABALTZEKO ETA FUNTZIONAMENDUAN JARTZEKO LIZENTZIA  
EMATEAGATIKO EDO, HALA BALITZ, KONTROL JARDUERA ADMINISTRATIBOAK  
EGITEAGATIKO TASA**

**3 ERANSKINA**

**HIRUGARREN BATEK ESKATUTA UDAL ADMINISTRAZIOAK EDO UDAL AGINTARIEK  
EMATEN DITUZTEN DOKUMENTUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

Organikoaren edukiontziko txartela edo horren bikoizketa sartu. 2 €

**4 ERANSKINA**

**UDAL HILERRIKO ZERBITZUENGATIKO TASA**

Ohikoa Udalbatza  
PlenoPleno Ohikoa

## 5 ERANSKINA

### TAXI LIZENTZIEN TASAK

## 6 ERANSKINA

### Mankomunitateko zerbitzuak: hiri hondakin solidoak jaso, garraiatu eta birrintzeagatiko tasa

#### Aldaketak:

- % 5,13ko igoera etxe koentzat, tarifyan dagoen defizita arintzeko helburuarekin.
- % 0,5eko igoera merkataritzan, ostalaritzan eta industrian, jarduera ekonomikoa bultzatzeko helburuarekin.
- Lur ez urbanizagarrian kokatutako 2., 3., 4. eta 5. kategoriei 1.3 eta 1.4 tarifyen baliokidetasun tasa aplikatuko zaie horietan aurreikusitako baldintzak egiaztatutakoan. 1.2 tarifa SARTU.
- **Hobari berria: % 90ekoa hasierako 2 urteetan negozio edo jarduera ekonomiko berrientzat.**

% 90eko hobaria izango dute merkataritza edo zerbitzu establezimenduek, betiere, Udalak berak merkataritza edo zerbitzu sektorearen garapena sustatzeko dei dezakeen laguntzak jasotzeko eskatutako baldintzak betetzen dituenean lokalak, jarduerak zein jardueraren titularrak. Hobari horrek bi urteko iraupena izango du jarduera hasteko lizentzia ematen den egunetik edo jarduera hasi aurretiazko komunikazioa egiten den egunetik hasita.

## 7 ERANSKINA

### UR HORNIKUNTZA ESKAINTZEAGATIKO TASA

#### HONAKO ALDAKETAK EGITEA:

- A.- Orokorrean, % 1,20ko igoera onartzea, Ur Kontsortzioak iragarritakoarekin bat etorrita.
- B.- Talde ur-kontagailuen kasuan tarifyak nola aplikatu berariaz aurreikusi.

Zergapeko talde bati etxerako erabileraren antzerako ur-hornidura (ur hotza, berogailua, ur depositoa, ur bero zentrala eta abar) ematen dioten ur-kontagailu orokorrek honelako zerga izango dute:

- Tarifa finkoa: ordaindu egingo da.

- Tarifa aldakorra: Etxerako uraren bigarren tartearen prezioa aplikatuko da zuzenean kontsumo honetara arte: etxebizitza edota lokal kopurua bider 60 m<sup>3</sup> eginda ateratako emaitza. Gainerako m<sup>3</sup>-koei, baleude, dagozkien tarteko tarifak aplikatuko zaizkie.

## **8 ERANSKINA**

### **ESTOLDERIA, ETA KONTADOREAK MANTENDU ETA IRAKURTZEAGATIKO TASA**

## **9 ERANSKINA**

### **KIROL INSTALAZIOAK ETA KIROL ZERBITZUAK ERABILTZEAGATIKO TASA:**

0,5eko IGOERA (KPIa), ZERBITZUAREN BENETAKO KOSTEAREN ZATI BAT ERABILTZAILEEK ORDAINTZEKO.

## **10 ERANSKINA**

### **HIRI TRAFIKOA ANTOLATZEKO ETA KONTROLATZEKO JARDUERA BEREZIAK EGITEAGATIK (IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA ERRAZTEKOAK ETA UDALZAINGOAREN OHIKO TRAFIKOAREN SEINALEZTAPEN ETA ANTOLAKETAZ BESTELAKOAK) ORDAINDU BEHARREKO TASA**

## **11 ERANSKINA**

### **UDAL MUSEO-ESKOLA ZERBITZUAREN TASA**

## **12 ERANSKINA**

Ohikoa Udalbatza  
PlenoPleno Ohikoa

**UDAL-BASKULA ERABILTZEAGATIKO TASA**

**13 ERANSKINA**

**ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA**

Erabiltzaileei aplikatzeko gehienezko tarifa berri bat sartzea:

Laneguneko ordua	15.-€
Igande eta jaiegunetako ordua	20.-€

**14 ERANSKINA**

**ANIMALIAK EDUKITZEAGATIK ETA ZAINKETA ZERBITZUAGATIK ORDAINDU  
BEHARREKO TASA**

**14 ERANSKINA**

**ANIMALIAK EDUKITZEAGATIK ETA ZAINKETA ZERBITZUAGATIK ORDAINDU  
BEHARREKO TASA**

**15 ERANSKINA**

**ESKORIATZAKO TELEBANAKETA SAREARI LOTUNEA EGITEKO LIZENTZIA  
EMATEAGATIKO TASA**

**16 ERANSKINA**

**ZUBIATEKO LABEAN ZERBITZUAK (bisita gidatuak eta tailerrak) EMATEAGATIKO TASA**

**Zazpigarrena.-**

**Ohikoa Udalbatza  
PlenoPleno Ohikoa**

**UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

2019an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU, merkatuko tasa izan ezik.

**1 ERANSKINA**

**ERABILERA PUBLIKODUN LURRETAN ZANGAK ZABALDU EDO LUR AZPIA AZTERTZEKO PROBAK EGITEAGATIK, ZEIN BIDE PUBLIKOAN ZOLADURA EDO ESPALOIAK ALDATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA**

**2 ERANSKINA**

**ERABILERA PUBLIKODUN LURRAK ZENBAIT MATERIALEKIN (MERKANTZIAK, ERAIKUNTZARAKO MATERIALA, OBRA-HONDAKINAK, HESIAK, PUNTALAK, ESKORATZE TRESNAK, ALDAMIOAK ETA ANTZERAKOAK) HARTZEAGATIKO TASA**

**3 ERANSKINA**

**ERABILERA PUBLIKODUN LURREN AZPIA HARTZEAGATIKO TASA**

a) Kuotak urtero eskatuko dira.

**4 ERANSKINA**

**BIDE PUBLIKOAREN LURRA, HEGALKINA ETA LUR AZPIAREN ERABILERA PUBLIKO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASA**

**5 ERANSKINA**

Ohikoa Udalbatza  
PlenoPleno Ohikoa



**IBILGAILUAK ESPALOIETATIK SARTZEAGATIK ETA APARKALEKU ESKLUSIBORAKO**  
**EDO MERKANTZIEN ZAMAKETARAKO BIDE PUBLIKOA ERRESERBATZEAGATIK**  
**ORDAINDU BEHARREKO TASA**

**6 ERANSKINA**

**MERKATUAN POSTUAK JARTZEAGATIKO TASA**

Metro karratu eta eguneko ..... 0,78 eurotik 0,5 eurora jaitsi.

Postua argi publikoaren sarera lotzen denean (28,77 eurotik 24 eurora jaitsi) kobratuko dira hiruhileko kontsumo horregatik.

**Hobari bat sartu:** % 90eko hobaria egingo zaie herrian ekoiztutako produktuak saltzen dituztenei Eskoriatzan erroldatuta baldin badaude.

**7 ERANSKINA**

**ZALDIBAR ANTZOKIA KULTURARAKO, EKITALDI POLIFUNTZIONALETARAKO,**  
**AZOKETARAKO ETA EKITALDI PRIBATUETARAKO ERABILTZEAGATIK ORDAINDU**  
**BEHARREKO TASAK**

**Zortzigarrena**

**UDAL ONDASUNAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN**  
**ORDENANTZA**

**HONAKO ALDAKETAK EGITEA**

**1.- Kultur Etxeko aretoen prezio publikoa.**

**Ohikoa Udalbatza**  
PlenoPleno Ohikoa

1.1. Erabilera publikoa (hezkuntza eta kulturaren inguruko ekintzak eta irabazi asmorik gabeko erakundeek ekintzak): doan

1.2. Hileta zibilak: doan

1.3. Erabilera pribatua (ezkontzak eta irabazi asmoa duten erakundeetako ekintzak):

Egun osoa: 50 €

Goiza edo arratsaldea: 25 €

Aretoa aldi baterako, hau da, denbora batean hainbat emanaldi emateko, alokatzen duen pertsonari edo taldeari % 60ra arteko hobaria egin ahal izango zaio, interesdunak aurrez horrela eskatzen badu, eta kultura batzorde informatzaileak aretoan egin beharreko ekintzak gizartearen interesekoak edo onura publikorako izateagatik horrela proposatzen badu.

## **2.- Udal ondasunak erabiltzearen prezio publikoa.**

1. Musika ekipoa.....	180,00 €
2.- Bafle auto-anplifikatuak.....	
3. Eszenarioa, m bakoitzeko .....	8,00 €
4. Aulkiak, bakoitzeko .....	0,50 €
5. Mahaiak, bakoitzeko.....	6,00 €
6. Karpa handia .....	150,00 €
7. Sutegiak, bakoitzeko .....	15,00 €
8. Taloak egiteko mahaia .....	200,00 €
9. Parrilla .....	200,00 €
10. Estufak, bakoitzeko .....	40,00 €
11. Eszenario txikia, modulu bakoitzeko .....	25,00 €
12.- Interpretaritza maleta .....	180,00 €

**Udal ondasunak erabiliz gero, % 100eko hobaria izango da, kasu hauetan:**

### **Pertsona juridikoak**

Pertsona juridikoa irabazi asmorik gabekoa bada, edota bere berezko jardueraren zerbitzuak hirugarrenei kobratzen ez badizkie; eta, betiere, eskatutako ondasunak jende orori zuzendutako jarduera baterako baldin badira.

Irabaziak lortzeko asmoa izan arren, eskatutako ondasunak pertsona juridiko horren berezko jarduerarako ez diren gizarte, kultura, ongintza edo antzeko izaerako ekintza baterako badira eta jarduerok jende orori zuzenduta baldin badaude.

Irabazi asmorik gabekoa izan eta bere berezko jarduerarengatik hirugarrenei zerbitzuak kobratzen dizkieten pertsona juridikoak badira; eta, betiere, eskatutako ondasunak pertsona

juridiko horren berezko jarduerarako ez diren gizarte, kultura, ongintza edo antzeko izaerako ekintza baterako badira eta jarduerok jende orori zuzenduta baldin badaude.

Ez da jotzen hirugarren batzuei kobratu izana, musika, euskara, folklore, kirol edo ongintzako jarduerekin lotutako erakundeei egindako ekarpenak.

**Pertsona fisikoak:**

Udal ondasunak eskatzen dituztenean jende ororentzat izango den gizarte, kultura, ongintza edo antzeko izaerako ekintza baterako.

Udal ondasunak eskatzen dituztenean izaera ekonomikoa duen jarduera baterako eta irabaztekoa EZ den helburu baterako eta jende orori zuzenduta egon.

**Bederatzigarrena.-**

**ESKORIATZAKO UDALAK ANTOLATUTAKO JARDUERA EDOTA EKITALDI  
SOZIOKULTURALETARA JOATEGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA**

**4. ARTIKULUA ALDATZEA, ETA**

Honako hau dioen lekuan:

**4. artikulua. Tarifak.**

**4.1.- ZALDIBAR ANTZOKIAN ANTOLATUTAKO EKINTZAK, JARDUERAK ETA  
IKUSKIZUNAK.**

Zaldibar antzokian umeentzat antolatutako ikuskizunak: 3 euro  
Zaldibar antzokian nagusientzat antolatutako ikuskizunak: 4 euro.

Honako hau esatea:

**4. artikulua. Tarifak.**

**4.1.- ZALDIBAR ANTZOKIAN ANTOLATUTAKO EKINTZAK, JARDUERAK ETA  
IKUSKIZUNAK.**

Zaldibar antzokian umeentzat antolatutako ikuskizunak: 3 euro  
Zaldibar antzokian nagusientzat antolatutako ikuskizunak: 5 euro

### **1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.**

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 24 de setiembre de 2019.

### **2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 16 de octubre de 2019 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta de la Resolución aprobatoria del expediente de modificación de créditos N° 23

### **3.- EMPLAZAMIENTO PARA PERSONARSE EN EL RECURSO DE CASACIÓN INTERPUESTO POR LA ABOGACIA DEL ESTADO CON MOTIVO DE LAS BASES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DENTRO DEL PROGRAMA DE COOPERACIÓN CON PAÍSES EN VIAS DE DESARROLLO.**

Ante en el emplazamiento recibido con motivo del recurso de casación interpuesto por la Abogacía del Estado contra la sentencia dictada por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco- Sala de lo Contencioso-Administrativo, en fecha 10 de junio de 2019, por unanimidad de los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA :

Comparecer a través del Procurador de Madrid D. Antonio Sánchez Jauregui Alcaide y bajo la dirección del Letrado D. JUAN RAMON UGALDE EGAÑA ante la Sala Tercera del Tribunal Supremo en el recurso de casación interpuesto por la Administración General del Estado contra la sentencia dictada el 10 de junio de 2.019 por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de justicia del País Vasco en el recurso de Apelación nº 884/2018.

### **4.- PROPUESTA DE TARIFAS URBANAS DEL SERVICIO DE TAXI PARA EL AÑO 2020**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Autorizar para el año 2020 las siguientes tarifas de servicio de Taxi:

TARIFA 1*	TARIFA 2 **
-----------	-------------

Bajada de bandera	Kilometro recorrido	Hora de espera	Bajada de bandera	Kilómetro recorrido	Hora de espera
3,6806	1,1530	22,0197	3,6806	1,8390	34,6147

(\*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 horas y las 22:00 horas

